



Bergarako udalak deitutako proiektu / ideien lehiaketa 2013

Lehiatzailea: **BIDEGORRIA 0001**

1	DATU OROKORRAK:	2
1.1	SUSTATZAILEA.	2
1.2	PROIEKTUA.	2
1.3	LEKUTZEA.	2
2	PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA	2
3	PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA	2
4	PROIEKTU TEKNIKOA	2
5	BALIABIDEAK	2
6	AURREKONTUA	3
7	LABURPENA GAZTELERAZ	6

AURREPROIEKTUA

1 DATU OROKORRAK:

1.1 SUSTATZAILEA.

BERGARAKO UDALA

1.2 PROIEKTUA.

BIDEGORRIA hirigintza proiektua.

1.3 LEKUTZEA.

San Martzial kalea, Bergara, Gipuzkoa.

2 PROIEKTUAREN ZERGATIA, SARRERA

Bergarako Bidegorri sarea bukatu eta segurtasuna bermatzeko proiektu bat da hau. Bergara bizikletan lehengo trenbide zaharraren ibilbidetik zeharkatzeko nahiko argi dago, nahiz eta guneez batzutan oinezkoak eta txirrindulariak batera ibili. Ibilbide guztiak 3m, zabalera dauka San Martzial kalean (azoka aurrean) izan ezik. Bertan espaloia oso estua da eta oinezko eta txirrindularien artean arazoak sortzen dira, beraien segurtasuna urratuz.

3 PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Segurtasuna bermatzeko, espaloia oso estua denez, oinezkoak eta txirrindulariak banatzea proposatzen da txirrindulariendako bide berria eginez gaur egun dagoen hormaren gainetik.

Gaur egungo espaloia oinezkoentzako geldituko litzateke eta txirrindulariendako bide berriak 2m. izango litzuke.

4 PROIEKTU TEKNIKOA

Proiektu honetarako geologo baten laguntza beharrezkoa litzateke, mendiari kendu behar zaion zatiak goiko saihasbidean eraginik izan ez dezan. Ez da askorik hondeatu behar baina horma txiki bat egin beharko da.

Bestela proiektuak ez dauka zailtasunik, bidegorrian hormigoizko lauza bat bota eta ondoren asfalto gorriaz bukatu beharko da. Gaurko hormaren gainean baranda jarri eta San Martzialgo bidegurutzean horma zulatu eta malda malgu bat egin beharko da.

5 BALIABIDEAK

Proiektu honen garapena bere tamaina eta zailtasunagatik lehiaketara atera beharko litzateke. Puntu kritikoa mendiaren tratamendu geologikoa da.